

## **EZ OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2014.11.07**

Tolosako Udaletxean, 2014ko azaroaren 7an, En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 19:00 arratsaldeko 7,00tan, lehen deialdia egin horas del día 7 de noviembre de 2014, se ondoren, Udalbatza bildu da Ezohizko Osoko reúne el Ayuntamiento Pleno, en Sesión bilkura egiteko. Mahaiburua, Ibai Iriarte San Extraordinaria y primera convocatoria, bajo la Vicente, Korporazioko alkate-lehendakaria presidencia del alcalde, Ibai Iriarte San izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko Vicente, y la asistencia de los miembros que udalbazkide hauek agertu dira: se expresan, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relaciona:

Alkate-lehendakaria:

Ibai Iriarte San Vicente

Bertaratutako zinegotziak:

Lore Agirre Zipitria  
Hasier De los Rios Soraluze  
Igor Ezenarro Balda  
Pedro Manuel Etxabe Zabala  
Mikel Arreseigor Astibia  
Rosa Maria Urkola Irigoyen  
Ainhoa Etxeberria Aranburu  
Olatz Peon Ormazabal

Miren Ezkiaga Etxezarreta  
Jokin Azkue Arrastoa  
Nerea Letamendia Belloso  
Nuria Carbonell Miranda  
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez  
Jose Ignacio Asensio Bazterra

Ez bertaratuak:

Jon Koldobika Arsuaga Artola  
Jon Aldazabal Etxeberria

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Behin behineko Kontuhartzaitza:

Paulino Alonso Eraso.

### **Eguneko gai zerrenda:**

- |   |  |
|---|--|
| 1.-Tolosako taxi tarifen berrikustea 2015 urterako. | 1.-Revisión de las tarifas del sector del Taxi de Tolosa para el 2015. |
| 2.- 2015rako Ordenantza Fiskalak aldatzea.          | 2.- Modificación de las Ordenanzas Fiscales para el 2015.              |

- |   |   |
|---|---|
| 3.-Tolosako Udal aurrekontuaren 4/2014 kreditu aldaketa onartzea. | 3.-Aprobación de la modificación de créditos 4/2014 del presupuesto del Ayuntamiento de Tolosa. |
| 4.- Kreditu aldaketa eta egokortasuna. Komunikazioa Plenoari.     | 4.- Modificación de Créditos y estabilidad. Notificación al Pleno.                              |
| 1.-Tolosako taxi tarifen berrikustea 2015 urterako.               | 1.-Revisión de las tarifas del sector del Taxi de Tolosa para el 2015.                          |

### **2015 urterako Taxien tarifak**

Tolosaldeko taxiaren bi elkarteek (Agitaz eta G-Taxi) proposamen bera egin dute 2015 urteko tarifei dagokienez, hau da, 2014koak mantentzea eta, ondorioz, igoerarik ez burutzea.

Beraz, Tolosa Garatzen S.A.ren proposamena eta Ogasun batzordearen aldeko diktamena azterturik, Udalbatzak, aho batez,

### **ERABAKI DU**

**Lehen.-** 2015 urterako 2014 urteko taxi tarifei igoerarik ez aplikatzea. Ondorioz, 2015ko taxi tarifak honela geldituko lirateke:

- I Tarifa (lanegunetan 7tatik 22tara):  
Gutxieneko tarifa: 4,040208 euro  
Kilometroko: 0,991858 euro  
Itxarote ordua: 17,984887 euro
- II Tarifa (egunero 22tatik 7tara, eta larunbata, igande eta tokiko normatibak araututako jaiegunetan 7tatik 22tara):  
Gutxieneko tarifa: 4,559786 euro  
Kilometroko: 1,508899 euro  
Itxarote ordua: 26,492515 euro

**Bigarren.-** Erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailari bidaltzea.

## **2.- 2015rako Ordenantza Fiskalak aldatzea. 2.- Modificación de las Ordenanzas Fiscales para el 2015.**

Lehenik, Idazkariak Ogasun Batzordeko diktamena azaldu du eta honako parte-hartzeak izan dira:

### **... Lore Agirre Zipitria, Bildu:**

“Aipatu behar da pare bat batzordetan tratatu ditugula ordenantzak ohi den bezala. Ohiko aldaketak datoz hasiera batean, beste urtetan bezala KPI-ren igoera planteatzen delako zerga eta tasetan. Aurten dakizuen bezala 0 da, beraz, zerga eta tasak izoztea planteatzen dugu. Ohiko den beste neurri bat izango litzateke hondakinen tasa orokorra %5a igotzea, 2010 ezkerotik %5eko igoera planteatzen ari garelako, zerbitzuak suposatzen duen kostua finantziatu ahal izateko. Ohiko beste neurrietako bat, aurten ere onartzen dena 3. urtez, izango litzateke etxe hutsen errekarroa IBI-an, ondasun higiezinaren gaineko zerga horretan, aipatu izan den bezala, ohiko bizileku ez diren etxe horiek alokairu merkatura bideratzeko helburuarekin. Iaztik errepikatzen den plangintza izango litzateke errekarro honekin lortzen diren diru sarrera horiek etxebizitza planera bideratzea, hau da, sarrera horiekin udalak diru laguntzak eskaintzen ditu etxebizitzak egokitu eta alokairura bideratzeko. Hori ohiko neurrien artean eta aldaketa nagusienak 2015 urteko zerga eta tasei begira hiru hauek dira: terraza tasan, dirudienez, urtetako tabernarien eskaria izan da, Tolosa bi eremu desberdinetan bereiztea terrazaren kokalekuari dagokionean. Planteatzen ari dena mugimendu handiena dauzkaten gunetan tasa hau izoztea eta kanpoaldean edo periferiako auzoetan gelditzen diren terraza horiei %30ko jaitsiera aplikatzea.

Bigarren aldaketa nagusia izango litzateke establezimenduak irekitzeko baimenei dagokiena. Orain arte establezimendu berri bat irekitzen zen momentuan jarduera bera baldin bazen, baldin eta lehenengo mailako senide harremana baldin bazegoen, eskualdaketa horretan baimen horrek %30 txikiagoko kostua zeukan. Orain planteatzen ari dena da, eta batez ere, helburua da belaunaldi berriak jarduera hauekin jarraitzea eta tokiko merkataritza sustatzea, jarduera berdinekin mantentzen baldin bada establezimendu hori edozein izanda ere esku aldaketa horien arteko harremana, %50 merkeago izatea tasa. Eta, azkenik, 3. aldaketa nagusia 2015ean izango litzateke hondakinak biltzeko tasa horretan. Etxebizitzari dagokionean 3 tasa bereizten dira: tasa orokorra, auzokonpostaria egiten duenarena eta autokonpostaria egiten duenarena. Aldaketa nabarmenena sortzaile berezitan edo komertziotan dago, batez ere, nabaritu dugulako bazeudela bi tasa soilik: establezimendu orokorrei zegozkienak eta establezimendu bereziak izango zirenak. Establezimendu berezietan tabernak, janari dendak eta modu hortako establezimenduak ziren, baina ikusten zen zenbait sektore gelditzen zirela oso kastigatuta orain tasak planteatuta zeuden moduan. Planteatzen dena da, sistema berriak ahalbideratzen duenez, jakitea komertzio bakoitzak edo sortzaile berezi bakoitzak zer motako hondakin sortzen duen; ordenantza edo tasen antolaketa aldatu egiten dugu, tarifa hau bi zatitan bereiztuz; zati finkoa eta zati aldakorra. Zati finkoari dagokionean bereizten dira hiru talde nagusi, gero bai supermerkatu eta maximerkatuak; bereziketa hori, bazegoen lehen ere. Hiru talde nagusi sortzen dira hondakin motaren arabera. Oinarri baxuena izango dute ia hondakinik sortzen ez duten komertzioak eta izango lukete etxebizitza baten tasaren kopuru bera. Beste talde bat edukiko genuen kartoia asko sortzen duenak eta 3. talde bat organiko asko sortzen dutenak Aipatutako kasuetan, zati finko hori, oraingoarekin alderatuta, asko jaitsiko litzateke eta zati aldakorra joango

da errefuxa ateratzen duten maiztasunaren arabera. Orduan komerziante bakoitzak erabakia ahal izango du neurri batean ze maiztasunarekin atera. Lau baremo bezala markatzen dira: 6 aldiz ateratzen baldin badute urtean edo 6 aldi arte, ezer ez dute ordainduko; 18 aldi arte 72 euro. eta horrela 40 aldi arte; eta 40tik gora. Aldaketa guzti hauek harremana handia daukate bai merkataritzakin bai komertzioekin. Proposamena eztabaidatu da Tolosako&Co-rekin eta beren zenbait ñabardura ere, jaso dira. Proposamenak egin dituzte eta barneratuak izan dira hondakin tasei dagokioenean batez ere. Aipatu, idea bat egiteko, abokatu bulego batek orain arte 264 euro ordaintzen baldin bazituen, tasa berri honekin 173 euro ordainduko dituela. Aldaketa nabarmena da eta azkenean badakigu denok abokatu bulego batek ez duela hondakinik sortzen. Orduan, gehiegizko tasa ordaintzen ari zen orain arte. Harategiei ere, antzeko zerbait gertatzen zitzairen : sortzaile berezi hauek kontsideratzen ziren establezimendu berezi bezala, baina era berean behartuta zeuden sortzen zuten organikoak bilketa berezia izatea. Tasa bikoitza ari ziren ordaintzen: udalarentzako establezimendu berezia bezala, gehi aparteko bilketa. Beraz, orain erregularizatu egin da eta bakoitzak, daukagun informazioarekin behintzat, sortzen duten hondakinenean arabera ordainduko du.”

### **... Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSE-EE**

“Guk batzordean esan genuen bezala ez gaude ados hondakin tasaren igoerarekin eta bereziki badakizue ez gaudela ados aukeratu duzuen sistemarekin, nahiz eta esan duzu zenbait igoera egon direla beste urtetan, baina, noski, zerbitzuaren kostua ez da sistemaren aukeraketaren independentea, Segun zer sistema aukeratu dugun, horrelako kostua izango dugu. Eta aukeratu duzuen sistema oso garestia da eta hemen daukagu lehenengo ondorioa. Horregatik, nire botoa kontrakoa izango da, esan genuen bezala. Gainera, zerga guztiak eta tasa guztiak mantentzen dira igo gabe eta, kasualidadez, hondakin tasa igo egiten da %5.

Beste guztiarekin ez daukagu arazorik, baina hau iruditzen zait oso larria dela.”

### **... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ-PNV:**

“Planteatzen den irizpide orokorra tasa guztien inguruan KPI-aren parean uztearena da, bizimoduaren kostuaren arabera uztea eta hori 0 izatea. Horrekin ados gaude; hori izan da irizpide nagusia eta, gaur egun bizi dugun egoera ikusita, daukagun krisialdi gainean eta gainera itxura handirik ez duela epe motzean hemendik ateratzeko modurik, horren baitan ados gaude planteatu den irizpide orokorarekin; eta, Jose Ignaciok esan duen bezala, guk kontra gaude zaborren bilketan kudeaketan planteatzen den tasaren inguruan eman den igoerarekin.

Baita ere, aipatu egin da lehenago, eta ogasun batzordean baita ere atera zen kontua, gure garaian ere %5 igotzen zela eta zuek jarritako irizpidea hori bera dela, baina orduan esan bezala tasa horren prezioa ere lotuta dago segun eta zer zerbitzua prestatzen den, eta eskaintzen den zerbitzuarekin ez gaude ados. Guk beste planteamendua egiten genuen eta horren baitan ezezkoa emango diogu proposamenari.

Ez hori bakarrik, gero planteamendua dago baita ere hobariak eskaintzeko, auzokonpostagailu eta autokonpostagailuaren inguruan. Orohar, irizpide bezala egokia iruditzen zaigu, bainan batetik esan behar dugu hor zenbait Tolosar diskriminatzen gabiltzala, ez bait daukate denek aukera auzokonpostagailua erabiltzeko; oker ez banago Alde Zaharrean, lurreamendi auzoan, Belaten,

eta beste leku batzutan, ez dago auzokonpostagailurik eta horiek ez daukate aukerarik bonifikazio hori lortzeko. Proposamenak planteamendu zabalagoa beharko luke.

Azkenik, horren baitan, gu tasa horren igoeraren kontra gaude eta proposamen berri bat egitera goaz, jarduera ekonomikoarekin lotuta dagoena. Gure ustez, udalek bere neurrian, neurri xumean seguraski, aporta dezakete bere aletxoak ekonomia eta enplegua sustatzeko. Hori da hain zuzen ere, jarduera ekonomiko bat abian jarri behar denean edo denda bat, edozein jarduera industriala, edozein eratako lokaletan jarduera berri bat jarri behar denean, normalean obrak egin behar dira, neurri batekoak edo bestekoak, orduan hor udalak ohikoa da zerga bat aplikatzea, egiten diren obraren baitan; oker ez banago, bi koefiziente dira Tolosan aplikatzen direnak, %2a zenbait eremutan, Alde Zaharrean, %5a orohar, beste guztietan. Hori aplikatzen da edozein ekintzaileri, gaur egun ekintzaile abenturerorik badago; horiek ordaindu egiten dute %5a edo %2a. Orduan, gure planteamendua da, bereziki laguntzeko txikiei, obra egiten denean 50.000 eurotik beherakoa bada, 0 tasa izatea. Hor lizentzia transmisioan planteatu den bezala erdia, hemen planteamentua izango litzake 0 aplikatzea, eta 50.000 tik gora dagokion tasa kasu batzuetan %5a izango da eta beste batzutan %2a.

Horrela, iruditzen zaigu ez dela izugarritzko ahalegina eta kendu egiten diogula ekintzaile horiei zer bait martxan jarri nahi dutenean eta bere ogibidea atera nahi dutenean, udalak jartzen duen karga, gutxienez neurri handi batean. Gainera, gure ustetan, bide hori gehiago jorratzen jarraitu beharko genuke aurrera begira. Guk proposamen hau egiten dugu hemen eztabaidatzeko eta ahal bada adosteko.”

### **... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:**

“Gaur eguandik kontua da. Guk honen berririk ez genuen eta oraindik ez dugu jaso proposamenik. Proposamenaren berri eguandik telefonoz izan dugu, beraz, ezin izan dugu sakonean aztertu; baina, eguandik behintzat, hau da, ordu batetik aurrera, denbora eman digu ikusteko Gipuzkoa mailan dauden beste ereduak. Bestalde, hirigintzan ere, gaia teknikariek behintzat, garatzeko aukera izan dut.

Gure ustez, horrelako proposamen batek hausnarketarako denbora gehiago eskatzen du eta zentzu horretan ikusten dugu, adibidez Donostia batean, IZIOaren gainean bereizketa gehiago egiten direla, kontuan izanik hainbat sektore ekonomiko, horrela, elektrikari edo gremio txikiak. Horregatik ez zaigu proposamena egokia iruditzen. Bestalde, muga 50.000 eurotan planteatzen da baina izan daiteke 40.000 edo 60.000. Beste irizpidea izan daiteke m<sup>2</sup> koa, ez baita berdina komertzio baten azalera edo komertzioaren arabera egiten den inbertsioa, nahiz eta hau txikia izan. Horregatik iruditzen zaigu ezin dela mugatu komertzio edo hostalaritzara, agian badaudelako beste autonomoak edo beste sektore eta zenbait garapen ekonomikoko beste esparru, zeinak mereziko luketeen hobari hauek jaso ahal izatea. Bestalde, gure planteamendua izango litzateke hemendik aurrera, gaur eguandik jasota betarik ez dagoelako, eta ordenantzak onartu ahal izan behar dutelako, batzordean lantzea, adibidez, beste udal batzutan egon daitezkeen irizpideak eta horren inguruan egon daitezkeen jende aditua gonbidatzea ere, beraien proposamena mahai gainean jartzeko. Argi daukagu herriko gremioak sustatu behar ditugula; argi daukagu egoera ez dela erraza, eta zentzu horretan txikiari eta herritarrari laguntzeko ditugun neurrietan eskutik joango garela, baina uste dugu gaiak hausnarketa sakonagoa eskatzen duela momentu honetan. Horregatik, printzipioz, gure proposamena izango litzateke diktamena bere hortan onartzea eta gero, urtean zehar, aldatu behar baldin badira ordenantzak, aldatzea, baina hausnarketa sakonago baten ondorioz.”

**... Lore Agirre Zipitria, Bildu:**

“Hondakinen tasen inguruan egin diren aipamenen harira, badakizue, datuak esku artean izan ditugu azken urtetan, 400-500 mila euroko defizita jasan duela udalak zerbitzu horri dagokionez. Arrazoi horrengatik 2006tik eman dira igoera batzuk. Egia da eskaintzen den zerbitzu hori baino sarrera gehiago ezin direla lortu, baina hurbiltzen joan behar dela zalantzarik gabe, eta defizitik hori ezin dela asumitu. Berritort, horrengatik 2006tik honera urtero egon dira igoera horiek, eta nik ez nituzke nahastuko kudeaketa sistemarekin, ez duela zer ikusirik. Kudeaketa sistema bat erabaki du osoko bilkura honek, horrek dituen kostuekin. Aipatzen zuen Jose Ignacio Asensiok askoz garestiago dela, baina, datu batzuk aipatzearen, mankomunitateko datuen arabera, urtean aurrekusi daiteke, aurret, 5.000 tonatik gora errefusa bidaliko dugula zabortegira; horrek suposatzen du tratamendu gastuan 740.000 euro; baino sistema aldatuta, esaten genuen bezala, lortuko genukeela %60-65era igotzea berziklapena. Honekin, tratamendu gastu hori 740.000 tik jaitziko litzaiguke 440.000etara. Hor dago diferentzia.”

**... Jose Ignacio Asensio Bazterra, PSE-EE**

“Egia da denborakin ikusiko dugula ze nolako garestia izan den sistema berria. Ni zihur nago garestiago izango dela, eta hori denborarekin ikusiko dugu. Lasai, eta noski, aukeratzen dugun sistemak eta kostuak errelazio zuzena dauka erabat. Nola izango da independientea aukeratzen dugun sistema eta kostua? Mesedez!”

**... Jokin Azkue Arrastoa, EAJ-PNV:**

“Obren gaineko zergaren inguruan, ekintzaile berriei laguntzeko horretan, azterketa sakona egin dezakegu, baina azkenean hau guztia zenbait konbentzio aplikatzea da. Konbentzioak izan daitezke era batekoak edo besteak. Izan daitezke m<sup>2</sup>en arabera, sektore bat edo bestea, baina gure ustetan ez dut uste elektrikariei gutxiago laguntzeko edo denda txikia ireki behar duenei gehiago esatea baldintzatzen digunik. Ez dut uste egoera horretan gaudenik. Gure proposamena da indarrean jartzea proposatutakoa, eta nahi bada epe bat jarri, ez dakit zer epe izan litekeen, egiten den beste proposamena berri bat aztertu eta aplikatzeko. Azterketa sakona egiten urtea pasako dugu eta gure proposamena da onartu dezagun orain aurkeztutakoa eta proposamena berria baldin badugu eta gai baldin bagera lau hilabetetan egiteko, aldatuko dugu berria, baino onartu dezagun bat, hau dena konbentzioa delako. Ez dago Donostiak daukan bere planteamendua hartu beharrik, landuago izango du seguraski, baina azken batean konbentzio bat da ekintzaile bati babesa emateko, eta hori era askotara egin liteke. Badauzkagu beste era batzuetako erabakiak hartuta; gutxieneko soldata irabazten ez duten bonifikazioak; tasa guztietan badaude zenbait konbentzio hartuta eta konbentzio horiek diferenteak dira batetik bestera. Orduan gure proposamena hau da: jartzea martxan berehala eta aldatuko dugu gero.”

**... Ibai Iriarte San Vicente, Alkatea:**

“Nik proposatu dizutena hau da: urte bete baino denbora gutxiagoan, konpromisoa hartzen dugula aztertzeko gaia. Gaur egundian, telefonoz, izan dut gaiaren berri eta oraindik ez dakigu diru sarreretan eta irteeretan nola eragingo digun. Iruditzen zait sakoneko eztabaida baino, gutxieneko eztabaida behar duela.”

Ez da batzordetik pasa, eta esan dizudan bezala, ez daukagu idatziz ere; ez zait serioa iruditzen mahai gainean jartzea. Iruditzen zait gutxieneko azterketa bat izan behar duela. Nik konpromisoa hartzen dut aztertzeke azkar, ados gaudelako fondoan, baina iruditzen zait gutxieneko azterketa bat merezi duela gaiak, ez dakigulako momentu honetan zerga horren bidez zer diru sarrera sortzen den, eta gutxiago 50.000 eurotik beherakoak eta zer establezimendu, zer negozio eta zer aktibitate ekonomikori eragiten dion gehien eta gutxien horrelako zerga batek edo horrelako hobari baten planteamentuak. Ez da dirubilketa planteamentu bat egiten duguna; guk argi daukagu negozio txikiei laguntza eman behar zaiela, baina iruditzen zaigu gutxieneko azterketa bat egitea merezi duela eta ez dauka zertan urte bete itxoin beharrik. Beraz, iruditzen zait guk landuko dugula. Epe azkarrean lantzeko konpromisoa hartzen dugu, baina gutxiarik, minimo batean behintzat, aztertu beharreko gaia dela iruditzen zait eta ez berehala baiezkoa eman, jakin gabe zer ondorio izango dituen. Iruditzen zait sakoneko hausnarketa egin behar dugula.”

#### **... Lore Agirre Zipitria, Bildu:**

“ Beraz, bukatzeko, gonbidatzen zaituztet kalkulo erraz batzuk egitera. Aipatu dizkizueten datuekin, 5.200 tona bidaltzen ditugu errefuxara. Tona badakigu 144 euro kostatzen zaigula. Egin biderketa, 750.000 inguru. Sistema honek diote %60 inguruko berziklatze tasarekin egongo garela; beraz, birziklatuko ez duguna %40a izango da. Egin biderketa, eta 450.000 inguruan gaude, 750.000tik 450.000era jaitsiko gara. Horixek dira datuak eta daudenak. Eta berriro diot, ez desitxuratu ordenantzen eztabaidan planteatzen dena. Urtetan zehar informaziorik egon ez denez, batzuk egon dira behar dutena baino askoz gehiago ordaintzen; beraz, aldaketa honekin ahalbideratzen da bakoitzak ordaintzea edo hurbiltzea behintzat ordaintzea, sortzen dutenaren arabera. Hori da gaurko helburua.”

#### **... Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, Aralar:**

Egia esan ados egon gaitezke proposamenarekin, baina nere esperientzia profesionaletik ez zait zuhurra iruditzen neurri bat hartzea neurtu gabe zer ondorio ekonomiko izango duen. Hemen hori onartuko bagenu, ondorio ekonomikoak zeintzuk diren jakin gabe erabakia hartu beharko genuke. Ez dut uste administrazio publikoak zuhurrak ez diren erabakiak hartzea duenik; eskubidea badu, baina ez da egokia. Herritarren interesak eta herritarren diruak babestu egin behar ditugu eta horrelako erabakiak hartu baino lehen aztertu behar ditugu ondorioak ahalik eta hoberen. Dena den, filosofiarekin ados egon naiteke.”

Azkue jaunak adierazi ondoren proposamenaren eragina zein izango litzatekeen badakiela eta mantentzen duela bozketara jartzeko, kontuhartzaileak emandako datuak gutxi goraberakoak direla eta idazkariak horrelako proposamenak aurrez aurretik idatziz aurkeztu behar direla, bozketara jarri da emendakin gisa, eta ez da onartu Bildu eta Aralar alderdiko zinegotzien aurkako botoekin (8) eta EAJ-PNV-ko zinegotzien aldeko botoekin (6) eta PSE-PSOeko zinegotziaren abstentzioarekin.

Jarraian, Ogasun batzordeko diktamenaren arabera, Bildu, Aralarren zinegotzien aldeko botoekin, eta PNV-EAJren eta PSE-PSOeko aurkakoekin, Udalbatzak, gehiengoz,

## **ERABAKI DU:**

**Lehen.-** Ogasun batzordeak aurkezturiko diktamena, 2015rako Ordenantza Fiskalen aldaketari dagokiona, behin-behingo bere egitea.

**Bigarren.-** Hartutako akordioa eta bideratutako espedientea jendurrean jartzea hogeita hamar eguneko epez, Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 zk.dun Arau Foralak agindu bezala: Udaletxeko iragarki taulan, Gipuzkoako Lurralde Historiko boletinean eta egunkaririk zabalduenetako batean iragarkia argitaratuz.

8

**Hirugarren.-** Aipatutako erabakia behin betikoa jotzea beste erabakirik hartu beharrik gabe, jendurreko erakustaldi hori inolako erreklamaziorik jaso gabe agortu bada.

Hala ere, erabaki diren akordio bat edo batzuk erreklamazio xede bihurtzen badira, Udalbatzak horiei buruzko erabakiak hartzera joko du, aurkeztu diren erreklamazioei buruzko ebazpenak emanaz edo aipatu aldaketen behin-betiko testua onetsiz.

Alabaina, ez da erabaki berririk hartu behar izango jendurreko erakustaldiaren barru erreklamazio xede izan ez den edo ez diren akordioei buruz, akordio horiek behin-betiko onartutakotzat joko baitira.

## **Aipatutako diktamena**

### **“2015 urterako ordenantza fiskalen aldaketak**

#### **ORDENANTZA OROKORRA**

Egutegi fiskaletako urteak aldatzea diktaminatzen da:



KONTZEPTUA CONCEPTO	ALDIA PERIODO	ORDAINTZEKO BORONDATEZKO EPEA PLAZO DE PAGO VOLUNTARIO	HELBIDERATUTAKO ERREZIBOAK COBRO DE RECIBOS DOMICILIADOS
<b>Urtean behin ordaintzen diren zergak</b> <b><u>Tributos de periodicidad anual</u></b>			
- Ibilgailuen zerga - <i>Impuesto sobre vehículos</i>	2015	02.03.2015 - 15.04.2015	Borondatezko epearen azken egunean Ultimo día del periodo voluntario
- Ondasun higiezinaren zerga - <i>Impuesto sobre Bienes Inmuebles</i>	2015	15.05.2015 - 30.06.2015	Borondatezko epearen azken egunean Ultimo día del periodo voluntario
- Jarduera ekonomikoen zerga - <i>Impuesto s/ Actividades Económicas</i>	2015	01.10.2015 - 10.11.2015	Borondatezko epearen azken egunean Ultimo día del periodo voluntario
- Zaborren tasa . - <i>Tasa de Basuras</i>	2015	Tarifa fikoa: 02.06.2015 - 07.07.2015 Tarifa aldakorra: urte bukaeran/hurrungo urte haseran	Borondatezko epearen azken egunean Ultimo día del periodo voluntario
- Ibilgailuen sarbide eta pasabideen tasa - <i>Tasa de entrada vehículos y vados</i>	2015	02.06.2015 - 07.07.2015	Borondatezko epearen azken egunean Ultimo día del periodo voluntario
- Kutxazain automatikoen tasa - <i>Tasa de cajero automático</i>	2015	02.06.2015 - 07.07.2015	Borondatezko epearen azken egunean Ultimo día del periodo voluntario

## ZERGAK:

- **ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA:** Beste urteetan erabili den irizpidea jarraituz, ez zaio tipoari KPIa igotzen. Baizik eta, dirusarrerak %0 igo behar dira. Balore katastralak, orokorrean, %0 igo dira, baina etxebizitzak urte gehiago dituztenez, ondasun higiezin industrialak %1,02 jeitsi dira eta, gainerakoak, %0,69. Horren ondorioz, honela geratzen dira tipoak:

	2014	2015	Aldea
<b>Industrialak</b>	0,5482	0,5538	%1,02
<b>Gainerakoa</b>	0,2839	0,2859	%0,69

## **TASAK**

- Aurreko urteetan bezala, ordenantza fiskaletako tasen igoera onartzerako garaian, iraileko KPIa erabiltzen da. 2014ko urriaren 14an, Hego Euskal Herrian (4 probintziak kontuan hartuz), %0ko KPIa del argitaratu da.

Beraz, tasak %0 igotzea diktaminatzen da, hondakinen tasa izan ezik.

## **TERRAZAK (2.2.5 eranskina)**

- Terrazak: irizpide orokor bezala, KPIa igotzea diktaminatzen da. Hau da, gaur egungo tarifak mantentzea. Baina, terrazaren kokapenak garrantzi handia duenez, jarduera txikiago duten kaleetan dauden terrazei tarifa merkeagoa jartzea diktaminatzen da.

	TARIFA 1	TARIFA 2
URTE OSOA	100 € m2	70 €m2
MAIATZETIK URRIRA	80 €m2	56 €m2
EKAINAREN 15TIK- IRAILAREN 15ERA	50 €m2	35 €m2

TARIFA 1: Plaza Berria, Plaza Zaharra, Aroztegieta, Euskal Herria plaza, Lopez Mendizabal, Trianguloa, Batxiller Zaldibia, Oria, San Frantzisko, Zerkausia, Gipuzkoa plaza, Gernikako arbola

TARIFA 2: Besteak

Honela geratuko da taula:

<b>UDALEKO BIDE PUBLIKOETAKO UTILIZACION PRIVATIVA O APROVECHAMIENTO LURZORU, LURGAIN ETA ESPECIAL DEL SUELO, VUELO Y SUBSUELO DE LURRAZPIAREN ETA GAINERAKO LAS VIAS PUBLICAS MUNICIPALES Y DEMAS LURSAIL PUBLIKOEN ERABILERA TERRENOS DE DOMINIO PUBLICO</b> <b>PRIBATIBOA EDO PROBETXAMENDU BEREZIA</b>	<b>EUROAK 2015</b>
1. Ondasun edo zerbitzuen salmenta Aparatos de venta automática de bienes o servicios, automatikoko txanpon aparatuak, m2 edo accionadas con monedas. Por m <sup>2</sup> o fracción y mes o zatikia hileko fracción	13,80
2. Terraza eta instalazio osagarriak bide Terrazas e instalaciones complementarias en la vía publikoan : mahaiak, aulkiak, upelak edo pública: mesas,sillas, barriles o similares, por m <sup>2</sup> o antzekoak, m2 edo zatikia: fracción: Tarifa 1: Tarifa 1: 2.1. Urtebetekoa 2.1. Anual 2.2 Maiatzetik urrira 2.2. Mayo a octubre 2,3 Ekainaren 15tik irailaren 15era 2.3. De 15 de junio a 15 de septiembre Tarifa 2: Tarifa 2: 2.1. Urtebetekoa 2.1. Anual 2.2 Maiatzetik urrira 2.2. Mayo a octubre 2,3 Ekainaren 15tik irailaren 15era 2.3. De 15 de junio a 15 de septiembre	100,00 80,00 50,00 70,00 56,00 35,00
3. Zaborrak edo materialak gordetzeko Contenedores para depósito de escombros y edukinontziak, bakoitzeko eta eguneko materiales. Por unidad y día	4,80
4. Zabor, lur, harea, hormigoi, etab. M2 eta Por escombros, tierras, arenas, hormigones etc. Por eguneko m2 y día	2,05
5. Lokal edo establezimendu barrutik Por aprovechamientos del suelo con la venta de zuzenean bide publikora egiten den cualquier clase de artículos desde el interior de locales edozein artikuluren salmentarekin egindako o establecimientos directamente a la vía pública lurzoru aprobetxamendua, bide publikoa utilizando ésta como parte integrante del negocio. Por negozioaren zati osagarri bezala erabiliz, m <sup>2</sup> o fracción y mes o fracción m2 edo zatikia hileko edo zatikiko	5,85
6. Kutxazain automatikoa, bakoitzeko eta Cajero automático, por unidad al año urteko	360,55
7. Bide publikoa okupatzeagatik garabi, Por ocupación de vía pública con camión grúa, obren igogailu, obren modulo, enbor edo elevadores de obra, módulos de obra, troncos y antzekoekin, m2 edo zatikia hileko edo zatikiko edo similares. Por m <sup>2</sup> o fracción y mes o fracción	7,40
8. Aurrekoetan ikusi ez diren kasuetan, En los casos no incluidos en los anteriores, el Udalak zehaztuko du prezioaren Ayuntamiento determinará el importe del precio zenbatekoa, xehetasun eta berezitasun teniendo en cuenta las particularidades y guztiak kontuan izanda. características que concurran.	
9. Hilerria <b>Herentzia izaerako panteoi transmisioak, ezkontideen eta guraso eta seme-alaben artean</b> Gainerako transmisioak	Cementerio: Transmisiones a título hereditario entre conyuges, padres a hijos, de panteones Otras transmisiones 128,00 1.173,35
10. Kioskoak eta kabinak: Quioscos y cabinas: 10.1. ONCEren kabinak eta argazkiak 9.1 Cabinas de la O.N.C.E y obtención de fotografías. ateratzekoak. Bakoitzeko eta urteko Por unidad y año 10.2. Prentsa kioskoak. Bakoitzak hileko 9.2 Quioscos de prensa. Por unidad y mes	515,20 86,80

Aplikazio arauetan, 5. artikulua honela geratuko da:

## 5. artikulua:

Terrazen kasuan, bi tarifa mota daude kokalekuaren arabera. Ondorengo kaleen arabera, tarifa 1 edo 2 likidatuko zaie:

TARIFA 1:Plaza Berria, Plaza Zaharra, Aroztegieta, Euskal Herria plaza, Lopez Mendizabal, Trianguloa, Batxiller Zaldibia, Oria, San Frantzisko, Zerkausia, Gipuzkoa plaza, Gernikako arbola

TARIFA 2: Besteak

## Artículo 5:

En el caso de las terrazas, hay dos tipos de tarifas en función de su situación. Dependiendo de la calle, se liquidará la tarifa 1 o dos:

TARIFA 1:Plaza Berria, Plaza Zaharra, Aroztegieta, Euskal Herria plaza, Lopez Mendizabal, Trianguloa, Batxiller Zaldibia, Oria, San Frantzisko, Zerkausia, Gipuzkoa plaza, Gernikako arbola

TARIFA 2: Besteak

## ESTABLEZIMENDUAK IRIKITZEKO BAIMENA (2.1.3 eranskina)

Gaur egun, 4. artikulua honakoa dio: "Guraso eta seme-alaben arteko eta ezkontideen eta izatezko bikoteei buruzko maiatzaren 7ko 2/2003 Legeak xedatutakoaren arabera osatutako izatezko bikoteko kideen arteko titulartasun aldaketak (jardueraren aldaketa edo zabalkuntzarik ez dagoenean) tarifaren %50eko hobariarekin likidatuko dira."

2015 urterako, gauza bera onartzea diktaminatzen da, baina ez familiarren artean bakarrik. Baizik eta, jardueraren aldaketa edo zabalkuntzarik ez dagoen titulartasun aldaketa guztietan %50 likidatzea diktaminatzen da. Hobari bezala izan beharreak, tarifa berezi bat bezala onartzea diktaminatzen da.

ESTABLEZIMENDUAK BAIMENAK	IREKITZEKO LICENCIAS DE ESTABLECIMIENTOS	DE APERTURA DE	EUROAK 2015
TARIFA OROKORRA ETA MINIMOA	TARIFA GENERAL Y MINIMA		
A.1 Garajeak	A.1 Garages		400,30
A.2 Dendak	A.2 Comercios		440,80
A.3 Zerbitzuak	A.3 Servicios		573,00
A.4 Industria	A.4 Industrias		763,30
A.5 Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiapenak	A.5 Explotaciones agropecuarias		183,60
A.6 Instalazioen legeztapena (aire girotua, gas deposituak...)	A.6 Legalización de instalaciones (aire acondicionado, depósito de gas ...)		178,40
A.7 Lokalen azalerak 100 m <sup>2</sup> gaindituz gero, tarifak bikoiztu egiten dira. 200	A.7 En el supuesto de que las superficies de los locales fueran superiores a 100 m <sup>2</sup> , las tarifas		



Ordenantza fiskaletan isladatzea diktaminatzen da.

IBILGAILUEN APARKALDI MUGATUA BIDE PUBLIKOAN	ESTACIONAMIENTO LIMITADO DE VEHICULOS EN LA VIA PUBLICA	EUROAK 2015
30 minutu baino gutxiago, minutuko	Menos de 30 minutos, por minuto	0,01
Gune txuria. Gehienez 20 minutu	Zona blanca. Máximo 20 minutos	0,20
<b>ALDE MARROIA</b>	<b>SECTOR MARRON</b>	
30 minutu	30 minutos	0,40
Ordu bat	La primera hora de estacionamiento	0,90
<b>Ordu eta erdi</b>	Por hora y media de estacionamiento	1,35
<b>Bi ordu</b>	Por dos horas de estacionamiento	1,95
Salaketa baliogabetzea	Anulación de denuncia	11,20
<b>ALDE URDINA</b>	<b>SECTOR AZUL</b>	
30 minutu	30 minutos	0,40
Ordu bat	La primera hora de estacionamiento	0,90
<b>Ordu eta erdi</b>	Por hora y media de estacionamiento	1,35
<b>Bi ordu</b>	Por dos horas de estacionamiento	1,90
Hiru ordu	Por tres horas de estacionamiento	4,45
Lau ordu	Por cuatro horas de estacionamiento	7,70
Salaketa baliogabetzea	Anulación de denuncia	11,05
<b>ALDE BERDEA</b>	<b>SECTOR VERDE</b>	
Goiza	Mañana	1,90
Arratsaldea	Tarde	1,90
<b>Egun osoa</b>	Día completo	3,90
Salaketa baliogabetzea	Anulación de denuncia	11,05
<b>BERTAKOENTZAKO APARKALEKUA</b>	<b>APARCAMIENTO PARA RESIDENTES</b>	
Bertakoen txartela, €/ urte	Tarjeta residentes, €/ año	40,20
<b>PARKIMETROAK</b>	<b>PARQUIMETROS</b>	
Banakako parkimetroa, alokairuan	Parquímetro individual, en cesión de uso	200,00
Karga-txartela	Tarjeta de carga	11,05
<b>Txartelaren karga</b>	Carga de la tarjeta	30,00
Autokarabanentzako gunean aparkatzea eguneko	Estacionar en área de autocaravanas por día	1,00

## DOKUMENTU ADMINISTRATIBOAK (2.1.1 eranskina)

Hirigintzatik jasotako proposamena jarraituz, ondorengo diktaminatzen da. Gaur egun, horrela daude ordenantzak:

<u>BESTERIK</u>	<u>ASPECTOS VARIOS</u>	
D.1 Udal-makinetan eginiko fotokopia bakoitzeko	Por cada fotocopia realizada en las maquinas municipales	
DIN A-4	DIN A-4	0,12
DIN A-3	DIN A-3	0,21
DIN A-4 koloretan	DIN A-4 en color	1,21
DIN A-3 koloretan	DIN A-3 en color	2,18
D.2 Hirigintza izaerako aurreiazko kontsulta bakoitzagatik, eta kontsulta horrek eraginda como mínimo, sin perjuicio del cobro de los gastos Udaletik kanpoko profesionali aholkua edo que la evacuación de la consulta origine por txostena eskatzearen ondorioz sortutako gastuen asesoramiento o informe solicitados a profesionales kobrantzaren kalterik gabe, minimoa	Por cada consulta previa de carácter urbanístico, como mínimo, sin perjuicio del cobro de los gastos fuera del Ayuntamiento.	34,40
D.3 Plano normalen kopiak, metro linealeko edo zatiki bakoitzeko	Copias de planos normales, por metro lineal o fracción	4,42
D.4 Planoen kopia Plotterekin	Copias de planos con Plotter	
A-4	A-4	4,00
A-3	A-3	4,00
50 cm.	50 cm.	5,15
70 cm.	70 cm.	7,05
120 cm.	120 cm.	11,65
150 cm.	150 cm.	14,50
Planoak PDF formatoan, planoko	Planos en formato PDF, por plano	0,10
CD-Rom hutsa	CD-Rom virgen	0,50
D.5 Informazio kartografikoa CD-ROMean	Información cartográfica en CD-ROM	15,10

Hori ezabatu eta honela geratzea diktaminatzen da:

	<u>ASPECTOS VARIOS</u>	
D.1	Por cada fotocopia realizada en las maquinas municipales	
	DIN A-4	0,12
	DIN A-3	0,21
	DIN A-4 en color	1,21
	DIN A-3 en color	2,18
	Por cada consulta previa de carácter urbanístico, como mínimo, sin perjuicio del cobro de los gastos que la evacuación de la consulta origine por asesoramiento o informe solicitados a profesionales fuera del Ayuntamiento.	34,40
D.2	Copias de planos en B/N	
	DIN A-2 por unidad	1,25
	DIN A-1 por unidad	1,75
	DIN A-0 por unidad	2,25
	OTROS por metro lineal	2,25
D.3	Copias de planos con Plotter en color	
	DIN A-2 por unidad	1,80
	DIN A-1 por unidad	2,10
	DIN A-0 por unidad	2,50
	OTROS por metro lineal	2,50
D.4	Copias de planos en DWG	0,80
D.5	Copias de planos en formato PDF, JPEG o TIFF	0,25
D.6	CD-W virgen	1,50

### HONDAKINEN TASA (2.1.6 eranskina)

- Etxebizitzen kasuan: hiru tarifa egongo dira: orokorra, auzokonposta egiten dutenak eta autokonposta egiten dutenak:

Orokorra: azken urteetan bezala, %5eko igoera izango dute. 101,65 euro

Auzokonposta: %20 gutxiago izango da: 81,30 euro

Autokonposta: %30 gutxiago izango da: 71,15 euro

- Lokal itxien kasuan eta garajeen kasuan ere, tasa %5 igotzea diktaminatzen da:

	<b>2014</b>	<b>2015 proposamena</b>
Lokal itxiak eta 1-4 plazakoak	29,90 €	31,40 €
5-25 plazako garaje kolektiboak	127,80 €	134,20 €
25 baino gehiagoko garaje kolektiboak	264,10 €	277,30 €

- Industrien kasuan ere, %5 igotzea diktaminatzen da: 277,30 euro.
